

ZER JAZO ZAN PARACUELLOS DEL JARAMA⁹N? (1936-11-22)

Agintaritzak ankerraren azkenera eltzean España'tarrak "amnistia" eskiñi eta ezerezetik astea erabagi eben, naizta gero Pinotxet'eri kontuak eskatzeko lenengoak izan. Ez dot esango txarto egiña danik, baiña ha_j gogoratu au: Bere edestia aitzuten dauan erriak barriro bizi bear daua-la edesti ori".

PARACUELLOS DEL JARAMA

Erri naiko txiki baten izena da ori. Alcalá de Henares'tik ez urrin. Gaur gogoratzen dogun jazokizuna jazo zanean 1400 biztanle inguru izango ebazan.

EGUN ETA ORDU LARRIAK

Gudea as_j zan urtea bera zan: 1936^a.

Paracuellos'en urte orretako azillaren 22n. eguna baiño lentxuago lan bereizi bat egiten ziarduen: Lubaki edo 'zanja' aundi bat, egun eta ogei metro luze eta 8 metro zabal. Zertarako ete zan?

Egun beratan goizaldean larritasuna espetxean: Eguna araitu orduko espetxetik aterako ebezanen izenak esaten ebiltzazan, 8.650 izen. Guztiak larri, bakoitxak bere izena noiz entzungo. Amaitu ziran deiak eta deituak sartu ebezan autobus eta kamioietan eta Paracuellos'era eroan ebezan. Onein artean bat gitxienez bizkaitarra zan: Iruarizagatar Juan aita, Mariaren Biotz-Semeen arteko lekaidea, Igorreko semea, bera be musikalaria oso ona eta bera baiño be ohea zan Luis Iruarizaga aitaren anaia.

SARRASKIA

Guztiak Paracuellos'era eldu ziranean, amabosnako taldeak egin eta taldeka tirokatu ebezan: 8.650 inguri erail ebezan. Orduan jakin zan lubaki edo zajatzar aundia zertarako zan. Inguruko errietatik laguntzailleak ekarri eta lubakiaren barruan egozenen "gaiñera lurra" bota eben. Or amaitu zan dana, or geratu zan lurpean gure Iruarizaga'tar Jon aita.

ERANTZUKIZUNA NORK?

Or ikusten da zelako basatikeria sartzen dan gizonen barrura guda sortzen danean. Olako edo antzeko jazokizunak zenbat eta zenbat!

Baiña zergaitik erail ebezan?

Lenengo eskoitarrak ziralako eta erkala edo errepublika ezkertarra zan. Errua ete da ori be'?

Eta bigarren kristiñauak zi~alako eta orduko kristi-

ñauen irakatsiak erkalaren aurka joiazalako. Gudea sortu ondoren areriotzat artzen ziralako.

Ez dakit ildako oneik gure Aita Santuak santu egin gura dauzenen artean dagozen, baiña ba-leiteke.

Eta nork dauka sarraski ikaragarri orren erantzukizuna?

Ez da erreza erantzuna, baiña ha_j esan bear da, orduan, oker ez ba'nago, Santiago Carrillo zala agintaritzaren Barru-Ministroa eta bere ardurapean egoala espetxeratuen arazoa.

BIZITZEA LABUR

Iruarizaga'tar Juan aita Igorre'ko Errekakoetxea base-rian jaio zan. Bide zabaletik ikusten da etxe au.

Bederatzi neba-arreba ziran, zazpi mutillak eta bi neskak. Euretatik lau sartu ziran Mariaren Biotz-Semeen alkartera: Luis, Juan, Gerbasio ta Kreszentzio.

Gure Juan aita 1898n. urteko azillaren 21n. egunean jaio zan. Gazte-gaztetxua zala Bilbao'ko josulagunen elei-zan izan abeslari. Andik Balmaseda'ra joan zan Maria'ren Biotz-Seme Misiolarien lekaide-etxera, amabi urrekoa zala. Andik Segobia'ra ikasketak jarraitzeko 1923n. urtean egin zan abade. Urrengo Paris'era, Naparroa'ko Beire'ra eta Madrid'era. Toki guzti orreitan ereslari edo musiku-lan ikaragarria egin eban. 1928n. urtean "Tesoro Sacro Musical" aldizkariaren zuzendari aurkitzen dogu Madrid'en.

Ona emen, itzez itz, Luis aita bere anaiaren bizitza-destia dan liburtik artutako azkenengo berbak:

"Guztiok itxaroten genduzan Juan Aitagandik egun aundiak eta ugariak España'ko eleiz-eresarentzat. Bere irudia azten eta gizandi biurtzen gendualako eta bere jarraitzaileen aldetik norantza doan dakian eta arrigarri zan gizon lez ikusten zalako. Baiña beste batzuk ziran Jaunaren bideak. Juan aitak 38 urte zituanean, erritarren arteko gudea sortu zan España'n 36n. urtean eta Juan aita izan zan guda orren ondoren lez il ziranen arteko bat: zemendiaren 22'an, bere urte eguna ospatu eta urrengo egunean: Madrid'eko Jarama'ko Paracuellos'en il zan".

Ona emen azken-galdera batzuk: Iruarizaga sendiak ez dau iñor salatzen. Olako sarraskia egin ebenak zelan salatu leikee Pinotxet? Zelako astakeriak egiten diran guda sortu ezker! Ez da erantzukizun makala guda asten dabenak daukena!

OLAZAR'tar MARTIN'ek